

**ETORKIZUNARI
BEGIRA**



**GIDA
DIDAKTIKOA**

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespena du: 2019-11-13

Irakasleari zuzendua

Etapia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Maila: 4. ikasturtea

Arloa: Hezkuntza orientabidea

Denboralizazioa: saio bakarra

Proposamena testuinguruan kokatzea:

Gailu anitzetarako prestatuta dagoen plataforma hau hezkuntza orientabiderako erreminta paregabea da, honi esker, ikasleak batxilergo modalitate desberdinak bere nahi eta gaitasunekin bat datozen ezagutzeko aukera izango du eta.

Ikasleak plataforman aurkituko dituen galderak erantzun behar ditu eta hauetan emandako ihardespenen arabera, batxilergoko modalitateak (Arteak, Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientziak) zenbateraino egokitzen zaizkion esango dio plataformak.

Horrez gain, ikasleak batxilergo modalitate bakoitzaren irakasgaiak zeintzuk diren eta lotura duten lanbide desberdinen zerrenda ikusteko parada izango du.

Oinarrizko kompetentziekin duen lotura:

Plataforma honetan erabiliko den metodologia eta garatuko dena kontuan izanda, hauek dira landuko diren oinarrizko zehar-kompetentziak:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia:

Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

- Izaten ikasteko konpetentzia:

Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeko.

Bestalde, batxilergoko hiru modalitateekin zerikusia duten galderak planteatuko direnez, diziplina barneko konpetentzia hauek ere nolabait lantzen direla esan genezake:

- Matematikarako konpetentzia:

Jakintza matematikoa aplikatzea bizitzako premiekin zerikusia duten arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen-moduak eta tresnak erabilia.

- Zientziarako konpetentzia:

Jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak erabiltzea hainbat testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko.

- Arterako konpetentzia:

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera anitzetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

Helburuak:

Plataforma honen helburu nagusiak jarraian aipatzen direnak izango dira:

- Gutxi barru erabaki bat hartu behar duen ikasleari hezkuntza orientabidea eskaintzea.
- Pertsonaren bokazio interesen ezagutza erraztea.
- Norbanakoaren gaitasunen ezagutza areagotzea.

Ebaluazio irizpideak:

Proposatutako helburuekin bat datozen ebaluazio-irizpideak honako hauek dira:

- Plataformaren erabilerari esker ikasleak orientabide akademikoa jaso du.
- Plataformaren erabileraren ostean ikaslearen bokazio interesen ezagutza erraztu da.
- Plataformaren erabilera dela eta ikasleak bere gaitasunen ezagutza areagotu du.

Edukiak:

Ikasleak hamaika kutxatila dituen ibilbide bat ikusiko du plataforman. Kutxa horietako bakoitzean honako hauek dira aurkituko dituen edukiak:

1. Matematikarako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
2. Arterako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
3. Ikaslearen nahiekin zerikusia duten galderak.

4. Zientziarako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
5. Matematikarako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
6. Ikaslearen nahiekin zerikusia duten galderak.
7. Arterako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
8. Zientziarako konpetentziarekin zerikusia duten galderak.
9. Ikaslearen nahiekin zerikusia duten galderak.
10. Ikasketa-espedientearekin zerikusia duten galderak.
11. Batxilergo modalitate bakoitzarekin lortutako egokitasun maila, irakasgaiak eta lanbideak ikusteko kutxatila.

Metodologia:

Lehenengo pausoa plataformaren web-orrira sartzea izango da. Horretarako, interneterako sarbidea duen gailu baten nabigatzailean <https://etorkizuna.gestionetsimulators.com/> idatzi behar da.

Plataformaren hasierako orrian, ikasleak zereginen eta helburuen berri jasoko du.

‘Plataforma honetan, zure nahiekin eta gaitasunekin zerikusia duten galderak erantzuteko aukera izango duzu. Erantzun horiek kontuan izanda, batxilergo mota desberdinak zenbateraino egokitzen zaizkizun esango dizu plataformak. Prest?’

Pantaila horretan bertan aurki dezakeen ‘Aurrera’ botoia sakatuz gero, menu orokorrera sartu eta hamaika kutxatila dituen ibilbide bat ikusiko du.

Lehenengo kutxatila argizatuta eta beste guztiak itzalita egongo dira, beraz, beste aukerarik ez dagoenez, blokeoa kenduta duen horretan klik egin beharko du.

Lehenengoa konpetentziekin zerikusia duen kutxatila horietako bat denez, ikasleak test motako eta egia/gezurra motako itemak erantzun behar ditu denbora tarte jakin batean. Uneoro multzo hori sortzen duten galdera kopurua eta geratzen zaion denbora ikusteko aukera izango du.

Ikasleak kutxatila honetan aurkituko dituen galderak erantzun eta gero (edo denbora bukatu eta gero) hasierako menu orokorrera bueltatuko da eta bigarren kutxatila argiztatu dela ikusiko du.

Dinamika oso erraza da, ikasleak kutxatila guztietan aurkituko dituen galderak erantzun behar ditu.

Ikasleak aurrera egiten duen heinean, kutxatila mota desberdinak daudela ikusiko du; konpetentziekin zerikusia dutenak, interes eta nahiekin zerikusia dutenak, ikasketa-espeditentarekin zerikusia duena eta batxilergo modalitate bakoitzarekin lortutako egokitasun maila, irakasgai eta lanbideekin zerikusia duena.

Konpetentziekin zerikusia duten kutxatilik lehenengoa, bigarrena, laugarrena, bosgarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena dira eta, esan bezala, horietan test motako eta egia/gezurra motako itemak erantzun behar ditu ikasleak.

Hirugarren, seigarren eta bederatzigarren kutxatiletan, aldiz, ikaslearen nahiekin zerikusia duten galderak aurkituko ditugu. Hauetan, ikasleak hiruak multzokatuta dauden irudiak ikusiko ditu. Lehenik eta behin, bere interes edo nahiekin antz gehien duena aukeratu behar du eta, bigarrenik, antz gutxien duena. Nahi ez duen irudia aukeratzuz gero, atzera egin dezake berriz ere irudian klik eginda eta hurrengo pantailara igarotzeko, 'Jarraitu' botoia sakatu behar du.

Hamargarren kutxatilan, ikasleak ikasgai desberdinen izenak ikusiko ditu, eta azken hiruhilekoan edo azken ikasturtean horietako bakoitzean lortutako nota zein den adierazi behar du. Horretarako, menu zabalgarria ireki eta dagokion kalifikazioa hautatu behar du. Ikasleak ikasgaien bat landu ez badu 'Ikasi gabea' aukeratzeko parada izango du.

Bukatzeko, hamaikagarren kutxatilan, ikasleak emaitzak ikusteko aukera izango du. Bere erantzunen arabera plataformak batxilergo mota desberdinak zenbateraino egokitzen zaizkion esango dio eta, gainera, batxilergo modalitate bakoitzeko bi botoi izango ditu. Lehenengoan, 'Irakasgaiak', batxilergo horren lehenengo eta bigarren mailetan lantzen diren irakasgaiak zeintzuk diren ikusteko parada izango du eta, bigarrenean, 'Lanbideak', batxilergo modalitate horrekin harremana duten ogibide batzuk ikusiko ditu.

Ikasleak plataformako probak nahi bezain beste aldiz errepikatzeko aukera izango du eta probak berregiterakoan erantzun desberdinak ematen baldin baditu, emaitzak aldatuko dira.